



GARIKANO, Asun
Far Westeko Euskal Herria
 Iruñea: Pamiela, 2009
 432 or. : ir. ; 21 cm.
 ISBN: 978-84-7681-601-1

Axun Garikanoren *Far Westeko Euskal Herria* liburuak XIX. eta XX. mendeen artean Ipar Ameriketako Mendebaldean izandako euskaldunen bizimodua erakusten du. Hizgai diren euskaldunak nagusiki Oregon, Idaho, Nevada, Utah, Wyoming eta California estatuetan kokatzen dira, batzuk New Yorketik herrialdea alderik alde zeharkatu ondoren, beste batzuk aurrena Argentinan edo Uruguain bizi eta urre gorriaren hotsak deituta, ia kontinente osoa zeharkatzeko bidaia eginda iritsitakoak.

Aurkibideko atalen izenburuek nahikoa adierazten dute edukiaren nondik norako nagusiaz eta gaien antolaketaz. *Ameriketarantz (I)* izeneko atalean euskaldunek Euskal Herria uzteko zailtasunei aurre nola egin zieten erakusten da. *Emigrazioaren arrazoiak (II)* atalean emigrazioaren ametsaren bultzatzaile eta aurkarien berri ematen zaigu. *Mundu berriko bizimoduak (III)* atalak Ameriketako bizimoduaren gazi-gozoen berri ematen digu. *Euskal Herrian berriro (IV)* atalak atzera etxera bueltatu ondorengo etxeetako pozak eta aldi berean ordurako Amerikako bizimodura jarrita hango bizipen-lorpenak utzi eta bueltatzeak askori sortzen zizkien sentipen kontrajarriak du gaia. *Bertakotuak eta haien ondorengoak: euskal-amerikarrak (V)* atalean beren gogoz edota bestela ezinda gogoaren kontra gelditu ziren Ameriketako *Basques* eta Euskal Herriko *amerikarrak* bezala ezagutzen ziren bizipenak.

Bizipen gozoren artean aipatzekoa da gizonezko eta emakumezko askoren poza, jaioterri txikiko presiorik gabe, dimentsio handiko paraje ikusgarri haietan. Bizimodu gogorrean lan latz eginez bizirik irautea lortu zuen gizataldeak zaildutako langile eta sinesmen handiko izanda zintzo jokatzearen ospea ere irabazi zuen, lana eta erlijioa, biak amerikarren etikarekin bat zetozen ezaugarriak. Orokorrean amerikarrek begi onez ikusten zituzten euskaldunak, eta ez ziren gutxi izan artzaintzan hasi, artalde jabe eginda aberastu zirenak arrantxo handietan edo ostatu eta hotelak bezalako beste negozio batzuetan sartu ondoren. Ostatuak ziren bakardadean bizitako gizon eta emakumeen topaleku, elkartasun truke, ospakizun, joko, dantza eta alaitasun lekua, baita euskaldunek edozein motatako laguntza behar izanez gero jotzen zuten lekua ere, diru mailegutza adibidez. Ostatujabearen familiak, etxeoandreek bereziki, ardura asko bereganatzen zituzten bezeroentzako egoitza eta jana prestatzeaz gain, erizaintzan eta emagintzan ere aritzen baitziren, besteak beste. Euskaldunek orokorrean taldekidetasunari imo eutsi zioten, sortu ziren hainbat motatako elkarteek erakusten duten bezala, besteak beste *La Sociedad de Socorros Mutuos*, mediku larrialdietarako ez ezik elbarrituak Euskalerriratzeko modua egiten zuena. Auzolanean eraikitako harrizko zenbait eraikin (etxeak, elizak) ere taldekidetasun haren lekuko iraunkorrek dira.

Tristurak eta nahigabeen aipamenak leku gehiago hartzen du Garikanok arakatu-tako iturrietan, pozak baino. Beharrak bultzatuta abiatu ziren asko XIX. mendearen erdi aldera, Euskal Herriko eguneroko bizimoduan familia bat aurrera ateratzeko zailtasunagatik edota bizitza gerran galtzeko arriskuak eraginda. Beste aldetik toki ezezagunetan eta bizimodu askeagoan ibiltzeko edota bizipen berriak izateko jakinminak bultzatuta abiatu ziren artean gizatalde txikietan bakarrik ibiltzen ikasiak ziren gazte lotsatiak. Bidaiarako dirua lortzeko zailtasunari, itsasontziko bidaia ez beti atsegina eta lurra ikutu

ondorengo arazo administratiboak gehituta, ondoren, azken helmugara iritsi bitarteko bidaiko pasadizo latzek, asko gaizki ulertuek eraginda, abiatuaren damua sorrarazi zioten bati baino gehiagori.

Mundu berriko hizkuntza ulertezina, arau-sistema eta jokamolde arrotzek sortutako izuak bultzatu zituen asko artzaintzara, ezaguna zuten lanbidea hautatzera. Baina hautu horrek Euskal Herriko gizarte zaharretik eta Ameriketako berritik ere, bietatik urruti kokarazi zituen. Baziren gizonezko batzuk hargintzan jardun zutenak, beste batzuk urre bila ibili zirenak, eta baita urrea aurkitu zuen bakarren bat ere! Emakumezko gehienak, berriz, neskametzan aritzen ziren. Baina milaka buruko artaldean arduraren kezka, mendietako eguraldi gogorra, pixtien beldurra eta bakardadea asko izan ezta hitz bidezko harreman arruntak eraiki ezinean dabiltzan euskal artzainen bizimodu latza da hizgairik emankorra liburuan, batzuen edanarekiko zaletasunaren pizgarria ere izan zena. Bakardadea orekatzeko, baziren bestela bertsoak idazten, euskaraz zein ingelesezko egunkari atzeratuak irakurtzeko ahaleginetan berri (zaharkitu)ak jakin ezezik etxekoa sendotu eta hizkuntza arrotza ikasten beren kasa, *beren eskolan* gogotik aritzen zirenak ere.

Euskaldunak atsekabetzen zituen beste gaia, inork bizia kentzearen beldurra zen. Zuri en eta indiarren arteko borrokek edota 1870-1920 bitartean artzainen eta aberezaleen arteko larreen gaineko istiluek euskaldun askoren heriotza erakarri baitzuten.

Ameriketan denboralditxo bat pasa eta etxera bueltatzeko asmoa zuten euskaldunetako batzuk pasadizo alaixeagoen lekuko dira, geroz Euskal Herrira itzultzeko asmoak alde batera utzi eta Ameriketan gelditzea erabaki ordea, batez ere zutenak. Denboraren poderioz familia osatu, ingelesa ikasi, irabazbidea sendotu eta hiritartasuna eskuratzuz geroz *Basque-American* izaera lortu zutenen kasua da aipagai. Familia horietako gurasoek Euskal Herriarekiko maitasunari eustearrekin batera Ameriketako bizimodu arruntarekin bat etortzeko ahaleginak egin zituzten, beren umeak gizarte amerikarrean baztertuak izateari utzi ezezik noizbait gizarte hartako parte bultzagarri ere bihurtuko zirelakoan. Bertakotu nahi horretan etxekoan artean ingelesa gero eta ohikoa bihurtu zen, eta horrek euskararen erabilerak atzera egitea ekarri zuen. Egungo Europako euskaldunen ikuspegitik begibistakoa ez bada ere, amerikar sentitu nahiaren adierazgarrien artean kokatzen da soldadu amerikar egiteko grina ere, eta horren adibide ditugu Bigarren Mundu Gerran Hitlerren aurka ibilitako zenbait euskaldun-amerikarren berriak.

Garikanoren testua, XIX. mendearen erdialdean hasi eta mende bat beranduago bitartean *Far West*eko euskaldunek utzitako lekukoaren bilduma txukundua, hainbat eratako osagaien hautaketa eta antolaketa zehatzaren emaitza da. Iturri batekoak baino gehiagotakoak dira osagaiok sarreran bertan eta geroago ere irakurleari aldioro adierazten zaion bezala. Ameriketan bizitako gizon-emakumeek utzitako testigantza zuzenak osatzen du multzo bat, dela idatzitako gutunak (Satrustegi 1971), kronika-lana egiten duten norberak osatu zein enkarguz eginarazitako bertso izendun edota izengabeak (Zavala 1984), dela basoko zuhaitz enborretan tailatutako hitz, izen laburdura edota marrazkien bidezkoa. Bigarren multzoa, euskaldun horiek edota ondorengoek haiek kontatutakoen berri gorde nahian idatzitako memoria argitaratu eta argitaragabeak (Errea ???, Eiguren 1988, Laxalt 2007). Idazki horiek eta zenbait historia liburu izan dira Mendebaldeko artzainen eta abeltzainen liskarretan oinarritutako hainbat nobela eta Hollywoodeko filmetarako inspirazio. Haien artean, esate batera, Bill O'Neill-en *Cattlemen vs. Shepherders*, edo Zane Greyren *To the last man*. Prentsak, hirugarren, era askotan osatzen du bilduma honetako gaia. Alde batetik tokiko ingelesezko prentsa amerikarrak zein euskarazkoak (*California'ko Eskual-Herria, Euskaldun ona...*), eta gaztelaniazkoak ere bai, inoiz, garai bateko ekonomian eta gizartean euskaldun taldeak izan zuen presentziaren berri jaso eta ematen dutelako: ostatu zabaltzeak, liskarrak, atxiloketak, jaiotzak, heriotzak, hiletak eta hilketak; bestetik, euskarazko egunkariak izugarriko zubi-lana egiten zuten Estatu Batuetako mendi-herrixketan sakabanatuta bizi ziren euskaldunen artean. Euskaldunei elkarren berri izateko moduan edota toki berriko ohitura eta administrazio-eginbideen gaineko mezu lagungarriak helarazten zizkieten euskal egunkariak, eta bestalde, itsasoz bi aldeetako euskaldunen artean jaioterriko loturak bizirik iraunda norbanakoan indar suspengarri bezala, nortasunari uko egin gabe urrutiko lur berrietan bizitzeko

amasa ematen zieten. Nolanahi ere, izandakoa eta asmatutakoa bereiztearen komenigarritasuna aldarrikatzen du Garikanok "tentuz tratatu beharra dago gaia" esanaz, irudikapena pizteko indar handia duten prentsako hainbat pasadizo ezagun aipatzarekoan, eta inoiz ikerketa-lan apur baterako bidea ere erakusten du. Esate batera, nobela beltz baten gaia izan zitekeen White Pine Countyko hilketarena, egunkarietako berrietakoa ez ezik, ikerketamedikuaren liburuko zehaztasunak ere erakusten dituenean.

Liburugilearen ikuspegi filologiko zentzudunaren adierazgarri dira iturrien hizkuntza eta hizkerarekin hartutako erabakiak. Ingeleseko eta frantseseko edota gaztelaniazko testuak euskaratu egin ditu Garikanok dotorezia faltarik gabeko euskara argian, irakurleak artxibo-lanaren ondorengo edukien mamia era erosoan atxeki dezakeela, eta bestalde, jatorrizko euskara mantendu du euskarazko testuetan, hartara, euskal hizkeren kolore-usain ugaritasunak indarrik ez izatea ere. Artxibozain serioz batek egingo lukeen bezala, idatzizko osagai guzti horiek kronologikoki txukun antolatzeaz gain, liburu atal bakoitza sarrera historiko labur eta argigarriz aurkeztu du gai bakoitzeko garaiko gertakari historikoen aipamen laburrak eginez, irakurleak edukiak gogoan ederki kokatzeko moduan baina ondoren datozten testuei inolako protagonismoik kendu gabe. Liburuan zehar eta amaierako oharren bidez egileak lagungarri gertatzen diren beste hainbat ohar argigarri zehatzago ere gehitzen ditu, batzuetan jatorrizko erderazko testuko hitzen bat jatorrian ere euskaraz zegoela adierazteko, laburduraren bat azaltzeko edo iturriaren aipamena egiteko. Eskertzekoa gertatzen da ohar horietako eduki argigarria testuz kanpo agertzea, hartara irakurketa arintzen delako, eta baita haien kopurua handiegia ez izatea ere. Amaitzeko, oharrek eta batez ere amaierako bibliografia zerrendak aukera ematen dio iturrietara jotzeko euskaldunen ibilerak sakonago ezagutu nahi dituenari. Hurrengo argitaraldirako zerbait gehitzekotan, liburuan zehar aipatutako euskaldunen abizenak eta orri-aldeak biltzen dituen zerrenda bat gehi liteke, arbasoen Ameriketako ibilaldien berri jakiteko interesa dutenentzat lagungarri.

Egilearen iturrienganako begiruneak aukera polita eskaintzen dio hizkuntzalariari protagonista euskaldun ia elebarkarren hizkera desberdintasunaz gozatzeko hautatutako bertso eta idazkietan, eta baita euskararen eta ingelesaren ukipen-egoeraren ondorioz sortutako adibideez gozatzeko ere. Adibidez, burua nahastuta adierazteko *ardituta* (sheeped-etik) edota *txamisoak jota* (sage-brushed-etik) *ardi-kanpo*, *arrantxo* (ranch-etik), *dotxaban* artzain ogia (Dutch-oven-etik), edota *inmi gizona* (inmigrazio polizia) bezalakoak.

Liburuaren beste ezaugarri bat ere nabarmentzekoa da, gozagarri grafikoa. Neurri egokian gehitua hori ere, agiri-sorta hutsen lehortasuna bustitzeko adinako argazki hurbileko, mapa edota mikrofitxetako gordailuetan aurkitutako sentipenez betetako hainbat bertsopaper, egunkari-zati eta agirien irudiak, testuaren indargarri. Aukeraketa eta atonketa lan guzti honekin jabetuta, irakurleak gogo kementsu eta esku fin pare batek eraturako artelan dotorea sentitzen du bere aurrean.

Orokorrean, Atlantikoz honuzkaldeko irakurle euskaldunak ustekabeko irudi gazi-gozo batekin egiten du topo liburu honetan, aurretik daukan *Ameriketako euskaldunen* irudi urrutiko eta lausoarekin bat ez datorrena. Garikanoren itxurakeriarik gabeko liburu gizakoiak Europako euskaldunari Ameriketako euskaldunak hurbilago eta herrikideago sentitzeko aukera eskaintzen dio.

Eiguren, J. *Kashpar. The Saga of the Basque Immigrants to North America*. Idaho, Basque Museum and Cultural Center of the Basques in Idaho and the West, 1988.

Errea, J. *My Mama Marie*. Narrazio autobiografiko argitaragabea.

Laxalt, R. 2007². *Sweet promised land*. University of Nevada Press, Reno & Las Vegas.

[Lehen edizioa, 1957koa, X. Mendigurenek euskaratua *Dominique: artzain xubertar bat Nevadan*. Elkar, Donostia, 1988].

Satrustegi, J.M. 1971. "Correspondencia familiar vasca del siglo XIX". *Fontes Linguae Vasconum*, 3, 9.

Zavala, A. *Ameriketako bertsoak*. Auspoa, Tolosa, 1984.

Marijose Ezeizabarrena Segurola